

ALDARRIKAPENA

BEKADUNEN mundu mailako greba

Beken edo lanaz aparteko praktiken funtzioa formazio teorikoa lan zentroetan lortutako praktikarekin osatzea izan behar da, tutoretza egoki baten bidez. Errealitatean berriz, Espainia bezalako herrialde batean, postu honek lan erlazioak ezkututzen ditu gehiegitan; enpresa eta instituzioetan, eskubideak dituzten langileak ikasle babesgabeengatik ordezkatzeko erabiltzen da; eta tituludun pertsonen lan munduan sartzeko bidesari moduan aurkezten zaie, kasu askotan beka bekadunei lana egitea dirurik ez kostatzeko diru ordainik edo laguntza nahikorik eman gabe.

Lanaz aparteko praktikak, laburbilduz, abusu, iruzur eta esplotazio ikaragarrian bihurtu dira, bai ikasle baita formazio eta jardura profesionalaren arabera lan kontratua izan beharko luketenentzat.

Arazo honi aurre egiteko, beharrezkoa da lehenik eta behin praktika kurrikularak ez-kurrikularetatik bereiztea. Lehenengoak derrigorrezkoak dira, hainbat titulazioren ikasketa planaren parte baitira, formazioa osatu eta hobetzeko asmoarekin. Bigarrenek lotura gehiago dute lan esperientziarik ez duten pertsonak lan bateranzko zubi paperarekin.

Zentzu honetan, praktika kurrikularen funtzio ulergarria dute, baina baita honen kalitatea, heziketa-izaera zorrotza eta diru-ordain nahikoa ziurtatuko testuinguru arautuaren exigentziak.

Hala ere, Curriculumaz aparteko beken izaera zalantzan jar daiteke. Espainian jada badaude langintza testuinguruan kontratu motak, esperientziarik ez baina formazio nahikoa duten edo kualifikazio egokia ez duten pertsonen lan mundurako zubia errazteko. Kontratu hauek, enpresentzat onuragarria izateaz gain, praktikak egiten hari diren edo formatzen jarraitzen dituzten pertsonen beka ematen ez dieten funtsezko eskubideak ematen dizkiete, Langileen Estatutuaren babesaz hasiz. Honengatik, praktika kurrikularen kalitatezko testuinguru izatea beharrezkoa ikusten bada, gainerako beken inguruan derrigorrezko eskari bihurtzen da laborizazioa; hau da, curriculumaz aparteko lanaz kanpoko praktikak lan kontratuengatik ordezkatzea, bai praktiketan edo formazioan baita ikaste prozesuan ere.

Lanaz aparteko praktikei lotutako gehiegikeriak – legalak izan edo ez – gure mugak birpasatzen dituzte. Arrazoi hau dela eta, aldarrikapen hau sinatzen duten erakundeak Bekadunen Mundu Mailako Grebara gehitzen dira, Otsailaren 20erako herrialde askotako elkarte, plataforma, ikasle mugimendu eta sindikatuek deitua. Gainera, botere publiko, partidu politiko eta gizarte zibil guztia deitzen da, Espainian, aipatutako errebindikazioak larritasunez eztabaidatzeko.